Getxo Kultur Etxea
Sinatua: Manu Alkiza Mezo (Erakundearen Zuzendaria/Director del Organismo)
Firmado: Koldo Iturbe Mendilibar (Getxoko Kultur Etxeko Presidentea/Presidente del Aula de Cultura de Getxo) Data: 2018/06/18 Fecha: 18/06/2018
Cod. Validacion: AUK/DEK/2018/285 9IpyiTzQb1

Legez emandako eskurantzez baliaturik proposatu da hurrengo Lehendakaritzaren ebazpena onestea.

En virtud de las atribuciones conferidas, se propone la aprobación de la siguiente Resolución de Presidencia.

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Lehendakaritzaren Ebazpena*** **Resolución de Presidencia:** | **285 / 2018** | ***Erref.* / Ref.:** | **P.C.** |
| ***Gaia* / Asunto:** | **VILLAMONTE ETA ROMOKO KULTUR ETXEAREN LOKALAK KUDEATZEKO JARRAIBIDEA / INSTRUCCIÓN PARA LA GESTIÓN DE LOCALES DEL AULA DE CULTURA DE VILLAMONTE Y ROMO** | | |
| ***Arloa* / Área:** | ***KULTUR ETXEA ADMINISTRAZIOA* / AULA CULTURA ADMINISTRACION** | | |
| ***Interesatua* / Interesado:** | | | |

## VILLAMONTE ETA ROMOKO KULTUR ETXEAREN LOKALAK KUDEATZEKO JARRAIBIDEA

**AURREKARIAK**

I.- Villamonte eta Romoko Kultur Etxearen gela eta aretoak dirua irabazteko asmorik hainbat elkartek erabili ohi dituzte, jakintza zabaltzeko eta kultura sortu eta sustatzeko asmoz egiten dituzten tailer, hitzaldi eta jardueretarako. Horrela, estatutuek Kultur Etxeari esleitzen dizkioten helburuak bultzatzen laguntzen dute.

Bestalde, Kultur Etxeari dagokio udalerriko taldeen kultur ekimenak sustatzen laguntzea.

Kulturako Plan Estrategikoak ahalegin gehiago egin gura ditu arte sorreraren eta prestakuntzaren sustapenean.

II.- Jarduera hori osagarria da Kultur Etxearen egitarauarekin, eta haren helburuei lotuta dago. Horregatik, aretoen erabilera dohainik egiten da, Kultur Etxeak berak bere gain hartzen baititu lagapen horrek sortzen dituen gastuak.

Dohainik erabiltzen dute, baita ere, dirua irabazteko asmorik ez daukaten beste erakunde batzuek, hala nola, administrazio publikoek, sindikatuek eta alderdi politikoek, Kultur Etxeak hartzen baitu gastuak bere

## INSTRUCCIÓN PARA LA GESTIÓN DE LOCALES DEL AULA DE CULTURA DE VILLAMONTE Y ROMO

**ANTECEDENTES**

I.- Las aulas y salas del Aula de Cultura de Villamonte y Romo, se vienen utilizando, de manera habitual, por multitud de asociaciones sin ánimo de lucro que, con los talleres, conferencias y actividades que realizan para la creación y promoción cultural y difusión de conocimiento, contribuyen al impulso de las finalidades que los Estatutos atribuyen al Aula de Cultura.

Corresponde por otro lado al Aula, ayudar a potenciar las iniciativas culturales de los distintos grupos del municipio.

El Plan Estratégico de Cultura plantea redoblar esfuerzos en el impulso a la creación y formación artística.

II.- En la medida en que la mencionada actividad resulta complementaria a la programación del Aula y vinculada a sus objetivos, el uso de las salas, se viene realizando de manera gratuita, al asumir el propio Aula de Cultura los gastos que la citada cesión puede generar.

También se usa de forma gratuita, por otras entidades sin ánimo de lucro como administraciones públicas, sindicatos y partidos políticos, al asumir el Aula de Cultura los gastos. Su actividad se encuentra

Cod. Validacion: AUK/DEK/2018/285 9IpyiTzQb1

Getxo KULTUR ETXEA
Sinatua: Manu Alkiza Mezo (Erakundearen Zuzendaria/Director del Organismo)
Firmado: Koldo Iturbe Mendilibar (Getxoko Kultur Etxeko Presidentea/Presidente del Aula de Cultura de Getxo) Data: 2018/06/18 Fecha: 18/06/2018

gain. Haren jarduera ordezkaritza eta parte hartze politikorako eskubideari lotuta dago, eta udal antolaketaren funtzionamenduarekin uztarturik.

relacionada con el derecho de representación y participación política y vinculada al funcionamiento de la organización municipal.

III.- Udalaren ordenantza fiskalak, 2018ko martxoaren 28ko osoko bilkuran onetsiak, bere prezio publikoen artean zenbait prezio hartzen ditu aintzat, Kultur Etxearen lokalen erabileragatik. Prezio horiek aurreko paragrafoetan aipatu ez diren jarduearetarako aretoak alokatzean aplikatzen dira, zeinen gastua ez duen Kultur Etxeak bere gain hartzen.

III.- La Ordenanza Fiscal del Ayuntamiento, aprobada en sesión plenaria celebrada el día 28 de marzo de 2018, contempla entre sus precios públicos, determinados precios por el uso de locales del Aula de Cultura, debiendo de entenderse la aplicación de la misma referida a alquileres de salas al margen de la actividad mencionada en los párrafos anteriores, y cuyo gasto no es asumido por el Aula.

IV.- Aretoak erabiltzeko eskaera, orain arte garrantzitsua zena, are handiagoa da, neurri handi batean, “Romo Kultur Etxea” ireki denetik aurrera.

IV.- La demanda para la utilización de las salas, que ya venía siendo importante, se ha visto incrementada, en gran medida, con la reciente apertura de la “Romo Kultur Etxea”.

V.- Horregatik guztiagatik, aretoak erabiltzeko orain arte egon diren irizpideak agiri batean islatu behar dira, eguneroko kudeaketa errazte aldera.

V.- Todo ello demanda que los criterios de uso de las salas que se venían aplicando hasta ahora, se plasmen en un documento que facilite la gestión diaria.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, hau dio bere 6. artikuluan: “Administrazioko organoek zerbitzuko jarraibide eta aginduen bidez zuzen ditzakete mendeko dituzten organoen ekintzak. Zerbitzuko jarraibide eta aginduak dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko dira, xedapen bereziren batek hala ezartzen badu edo, hartzaileak edo gerta daitezkeen ondorioak direla eta, komenigarritzat jotzen bada. Hala ere, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusita dagoenaren arabera ere zabaldu ahalko dira (...)”.

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

El artículo 6 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público señala lo siguiente: “Los órganos administrativos podrán dirigir las actividades de sus órganos jerárquicamente dependientes mediante instrucciones y órdenes de servicio. Cuando una disposición específica así lo establezca, o se estime conveniente por razón de los destinatarios o de los efectos que puedan producirse, las instrucciones y órdenes de servicio se publicarán en el boletín oficial que corresponda, sin perjuicio de su difusión de acuerdo con lo previsto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno (…).”

## PROPOSAMENA

I.- Onetsi egingo da VILLAMONTE ETA ROMOKO KULTUR ETXEAREN LOKALAK KUDEATZEKO JARRAIBIDEA, eranskin gisa ageri dena.

II.- Haren berri emango zaie aretoko arduradunei eta lokal horien kudeaketan esku hartzen duten gainerako langileei, eta webgunean argitaratuko da.

## PROPUESTA

I.- Aprobar la INSTRUCCIÓN PARA LA GESTIÓN DE LOCALES DEL AULA DE CULTURA DE VILLAMONTE Y ROMO, que figura como Anexo.

II.- Dar cuenta de la misma a los Responsables de Aula y demás personal que intervenga en la gestión de los citados locales, y publicarla en la página web.

Cod. Validacion: AUK/DEK/2018/285 9IpyiTzQb1

Getxo Kultur Etxea
Sinatua: Manu Alkiza Mezo (Erakundearen Zuzendaria/Director del Organismo)
Firmado: Koldo Iturbe Mendilibar (Getxoko Kultur Etxeko Presidentea/Presidente del Aula de Cultura de Getxo) Data: 2018/06/18 Fecha: 18/06/2018

**VILLAMONTE ETA ROMOKO KULTUR ETXEAREN LOKALAK KUDEATZEKO JARRAIBIDEA**

**Doako erabilera**

Villamonte eta Romoko Kultur Etxearen gela eta aretoak dirua irabazteko asmorik hainbat elkartek erabili ahalko dituzte, dohainik, jakintza zabaltzeko eta kultura sortu eta sustatzeko asmoz egiten dituzten tailer, hitzaldi eta jardueretarako, baldin eta estatutuek Kultur Etxeari esleitzen dizkioten helburuak bultzatzen laguntzen badute.

Hemen ez da sartzen Romo Kultur Etxeko entsegu-kabinen erabilera. Horiek, izan ere, alokatu egiten dira, zerbitzuak jasotzeko edo jarduerak egiteko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzan xedatutakoaren arabera, 2018ko martxoaren 28ko osoko bilkuran onetsia.

Modu berean, Getxoko Udalak, beste administrazio publiko batzuek, sindikatuek, eta alderdi politikoek ere dohainik erabiliko dituzte.

Erabilerak sortzen dituen gastu arruntak Kultur Etxeak hartuko ditu bere gain.

Prozedura:

- Planeatutako jarduerak: Maiatzaren 15etik ekainaren 15era epe bat irekiko da, irailetik ekainera bitartean egingo diren ekitaldietarako erabilera eskatzeko. Deialdiari publizitate nahikoa emango zaio. Uztailaren 15a baino lehen erantzungo da.

  Esleipen irizpideak (lehentasun-hurrenkera):

  1.- Getxoko Udaleko udal arloek eta erakunde autonomoek egiten dituztenak.
  2.- Udaleko Elkarteen Erregistroan izena emanda dauden dirua irabazteko asmorik gabeko udalerriko elkarteek egiten dituztenak.
  3.- Dirua irabazteko asmorik gabeko elkarteek arte sorkuntza eta prestakuntzarako jarduerak garatzeko

**INSTRUCCIÓN PARA LA GESTIÓN DE LOCALES DEL AULA DE CULTURA DE VILLAMONTE Y ROMO**

**Uso gratuito**

Las aulas y salas del Aula de Cultura de Villamonte y Romo se utilizarán de manera gratuita por asociaciones sin ánimo de lucro para la organización de talleres, conferencias y actividades dirigidas a la creación y promoción cultural y difusión de conocimiento que contribuyan al impulso de las finalidades que los Estatutos asignan al Aula de Cultura.

No se incluye el uso de cabinas de ensayo de la Romo Kultur Etxea, que son objeto de alquiler de acuerdo a lo dispuesto en la Ordenanza reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o realización de actividades, aprobada en sesión plenaria celebrada el día 28 de marzo de 2018.

También se usarán de forma gratuita, por el Ayuntamiento de Getxo, otras administraciones públicas, sindicatos y partidos políticos.

Los gastos ordinarios generados por el uso serán asumidos por el Aula.

Procedimiento:

- Actividades planificadas: Del 15 de mayo al 15 de junio se abrirá un plazo para solicitar el uso para eventos a realizar entre septiembre y junio. Se dará publicidad suficiente a la convocatoria. Se contestará antes del 15 de julio.

  Criterios de asignación (orden de prioridad):

  1.- Las que se realicen por Áreas Municipales y Organismos Autónomos del Ayuntamiento de Getxo.
  2.- Las que se realicen por asociaciones sin ánimo de lucro del municipio inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones .
  3.- Las que se realicen por asociaciones sin ánimo de lucro que tengan por

helburuz egiten dituztenak.

4.- Dirua irabazteko asmorik gabeko elkarteek arte sorkuntza eta prestakuntza ez den helburu batekin egiten dituztenak (adibidez, alderdi politikoek, sindikatuek eta beste administrazio batzuek egiten dituztenak).

- Aldian behingo jarduerak: Gutxienez 24 ordu lehenago eskatu behar dira. Sarrera-hurrenkeraren arabera ordenatuko dira, baldin eta lekurik baldin badago libre. Gehienez 48 orduko epean erantzungo da.

Getxoko Kultur Etxearen egitarauak lehentasuna izango du beste edozein erabileraren aurretik.

Planeatutako jarduerek lehentasuna izango dute aldian behin egiten direnen aurretik, eta doako erabilerak lehentasuna izango du alokairuen aurretik.

Eskaera-eredu bat eskainiko da, webgunean eskegiko dena.

**Alokairua**

Arestian aipatutako doako erabileratik kanpo egindako lagapenak dira. Zerbitzuak jasotzeagatik edo jarduerak egiteagatik dauden prezio publikoak arautzen dituen ordenantzak (2018ko martxoaren 28ko osoko bilkuran onetsiak) ezarritako prezio publiko egokia ordaindu beharko dute, eskaera egin ondoren. Sarrera-hurrenkeraren arabera ordenatuko dira, baldin eta lekurik baldin badago libre.

objeto el desarrollo de actividades dirigidas a la creación y formación artística.

4.- Las que se realicen por asociaciones sin ánimo de lucro con otro objeto distinto a la creación y formación artística, por partidos políticos, sindicatos y otras administraciones.

- Actividades ocasionales: Se solicitarán como mínimo con 24 horas de antelación. Se asignarán por orden de entrada, siempre y cuando exista disponibilidad. Se contestará en un plazo máximo de 48 horas.

La programación del Aula de Cultura de Getxo tendrá prioridad sobre cualquier otro uso.

Las actividades planificadas tendrán preferencia sobre las ocasionales, y el uso gratuito sobre los alquileres.

Se facilitará un modelo de solicitud, que se colgará en la página web.

**Alquiler**

Se trata de cesiones efectuadas al margen del uso gratuito indicado anteriormente, y que deberán abonar el correspondiente precio público aprobado en la Ordenanza reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o realización de actividades, aprobada en sesión plenaria celebrada el día 28 de marzo de 2018, previa solicitud. Se asignarán por orden de entrada, siempre y cuando exista disponibilidad.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/ administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal ( http://www.getxo.eus/ Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.



Cod. Validacion: AUK/DEK/2018/285 9IpyiTzQb1

Getxo Kultur Etxea

Sinatua: Manu Alkiza Mezo (Erakundearen Zuzendaria/Director del Organismo)
Firmado: Koldo Iturbe Mendilibar (Getxoko Kultur Etxeko Presidentea/Presidente del Aula de Cultura de Getxo) Data: 2018/06/18 Fecha: 18/06/2018